**ENTITATE ETA ERAKUNDE INTERESATUENTZAT**

Magna Cartako 36. artikuluan Elkargo Profesionalen erregimen juridikoa eta tituludun lanbideen jardutea arautzen da.

Gure Konstituzioak agindutakoa jarraituz, Elkargo Profesionalen inguruko 2/74 Legeak, zuzenbide publikoko korporazio gisa eratu zituen Elkargoak, funtzio jakin batzuk emanaz. Horien artean, lanbidearen jardunaren antolaketa eta zerbitzu profesionalen erabiltzaileen interesen babesa, nabarmentzen dira.

Ordenamendu juridikoak horretarako ematen dizkigun funtzioen arabera, Gizarte Langintzako Elkargoen betebeharra, legez ezarritako funtzioak bete daitezen zaintzea da.

Aipatutako funtzioak betetze aldera, Gizarte Laneko Diplomadunen Elkargo Ofizialak sortzeari buruzko apirilaren 13ko 10/1982 Legeko 3. artikuluan eta Elkargoen Estatutu Orokorrak onartzen dituen 174/2001 Errege Dekretuko 2. artikuluan jasotzen da Gizarte Lanean Gradua edo Diplomaduna izatearen titulua edo Gizarte Laguntzailearen titulua dutenek gure Elkargoetan sartzeko betebeharra daukatela. Modu horretan, ”***lanbidean aritzeko, dagokion Elkargoan sartzea derrigorrezkoa izango da”.***

Beraz, **Gizarte Laneko lanbidean aritzeko, legeak horrela aginduta, Elkargo Profesional batean sartuta egotea nahitaezkoa izanik,** legezko agindu horrek duen garrantzia azaldu nahi genuke.

Gizarte Laneko esku-hartze profesionalaren eragina, interes orokorrean eta bereziki, pertsonen funtsezko eskubideetan nabaria da. Garatutako funtzioen izaerak taldeen intimitatearekin, pribatutasunarekin eta kalteberatasunarekin loturiko kontuetan eragina dauka, eta honek jardunaren arrazoizko kontrol profesionala

**A LAS ENTIDADES Y ORGANISMOS INTERESADOS**

Nuestra Carta Magna en su artículo 36 regula el régimen jurídico de los Colegios Profesionales y el ejercicio de las profesiones tituladas.

Al dictado de nuestra Constitución, la Ley 2/74 de Colegios Profesionales configuró a estos como corporaciones de derecho público a los que atribuyó determinas funciones entre las que destaca, la ordenación del ejercicio de la profesión, así como la protección de los intereses de los y las usuarias de los servicios profesionales.

En virtud de las funciones que al efecto nos atribuye el ordenamiento jurídico los Colegios de Trabajo Social tenemos la obligación de tutelar el cumplimiento de las funciones legalmente establecidas.

Para el cumplimiento de las citadas funciones, el artículo 3 de la Ley 10/1982 de 13 de abril de creación de Colegios Oficiales de Diplomados en Trabajo Social y el artículo 2 del Real Decreto 174/2001 que aprobaba los Estatutos Generales de los Colegios recogen la obligación de incorporar a nuestros colegios a quienes estén en posesión del título de Grado o Diplomado/a en Trabajador/a Social o Asistente/a Social, ”***siendo obligatoria para el ejercicio de la profesión la incorporación al Colegio correspondiente.”***

**Siendo preceptivo para el ejercicio de la profesión de Trabajo Social, por imperativo legal, hallarse incorporado a un Colegio Profesional** queremos desgranar la importancia de este mandato legal.

Hay una evidente incidencia de la intervención profesional del Trabajo Social en el interés general y particularmente en los derechos fundamentales de las personas. La naturaleza de las funciones desarrolladas implica un grado de injerencia en aspectos relativos a la intimidad, privacidad y vulnerabilidad de los colectivos con

eskatzen du, gure ustez, Elkargo Profesionaletatik garatu behar dena.

los que trabajamos que exigen un razonable control profesional del ejercicio que entendemos debe ser procurado desde los Colegios Profesionales.

Gure lana lanbidearen mapa eratzen duten lan-eremu ugaritan agertzen da; alegia, esku-hartze sozialerako espezifikoki diseinaturiko profila da, eta esku-hartze profesionalaren parametroak justifikatzen ditu.

Nuestra labor se manifiesta en los múltiples ámbitos de trabajo que vienen a configurar el mapa de la profesión, se trata de un perfil específicamente diseñado para la intervención social, que justifica los parámetros de intervención profesional.

Profesionalak gure Elkargoetan sartzearekin, hau da, **Gizarte Laneko profesionalak elkargokide egitearekin,** lanbidean aritzea kontrola dezakegu, elkargokideak diren profesionalak lanbideak ezarritako arau deontologikoek eraentzen dituztela bermatuz, eta, era horretan, herritarren eskubideak zainduz.

Esta incorporación de los y las profesionales a nuestros colegios, esto es, **la colegiación de los/las profesionales de Trabajo Social** nos permite el control del ejercicio de la profesión garantizando que los/las profesionales colegiados/as se rigen por unas normas deontológicas fijadas por la profesión, lo que supone una salvaguarda de los derechos de los ciudadanos.

Auzitegi Gorenak adierazten duen moduan, **Gizarte Lana bezalako lanbide batean elkargokide egitea beharrezkoa da.** Gizarte Laneko lanbideak betetzen dituen jarduerak interes orokorrean inkardinatuta daude, herritarren funtsezko eskubideak babesteko eremuan duen garrantziarengatik.

Como señala el Tribunal Supremo l**a exigencia de la colegiación a una profesión como el Trabajo Social** se justifica por la importancia de la profesión de Trabajo Social en el ámbito de la tutela de los derechos fundamentales de los y las ciudadanas, estando incardinadas las actividades que desempeña en el ámbito interés general.

Halaber, **Gizarte Langileak elkargokide eginda,** gure elkargokideek eskaintzen dituzten zerbitzuen kalitatea kontrola dezakegu, herritarrei horien jardunbide egokia bermatuaz; izan ere, elkargokide izan gabe, gure Elkargoek kontrolatu gabeko profesionalek emandako zerbitzuak degrada daitezke.

Asimismo, **la colegiación de las Trabajadoras Sociales** nos permite actuar sobre el control de la calidad de los servicios prestados por nuestros y nuestras colegiadas garantizando a loa ciudadanía la buena práctica de estos, suponiendo la falta de colegiación una invitación a la degradación de los servicios prestados por profesionales no controlados por nuestros Colegios.

Era berean, herritarren eskubideen bermatzaileak izanik, **Gizarte Laneko profesionalak Elkargoan sartuta egoteak** herritarrari artatzen duen gizarte-langilearekiko konfiantza izatea eskaintzen dio. Hori gabe, herritarren eskubideak urratu daitezke, praxi

Igualmente, al constituirnos en garantes de los derechos de la ciudadanía **la colegiación de los/las profesionales de Trabajo Social,** otorga al ciudadano/a confianza en el trabajador/a social que le atiende. Sin ella los derechos de los y las

oker baten aurrean babes gabe geratzearekin batera.

Azkenik, hau ere garrantzitsua izanik, **Gizarte Laneko profesionalak elkargokide egiteak** elkargokideari, zuzenbide publikoko korporazioaren babesa ematen dio. Horrela, haren independentzia eta autonomia profesionala defendatzen da enplegatzaileen interesen aurrean, gerta baitaiteke azken horiek herritarren eskubideei baino interesei gehiago erreparatzea.

Gizarte Lana elkargokide bezala kalifikatutako lanbidea izanik, lehenago adierazitako araudiari jarraituz, gizarte-langileak gure Elkargoetan sartzea derrigorrezkoa denez, eta Elkargo sinatzaileek, funtzioak betetzen direla zaintzeko betebeharra dutenez, Elkargo-egitura osoak 2019 ko martxoaren 30ean egindako Ohiko Batzar Orokorrean erabaki du komenigarria dela idatzi hau Administrazio Publiko eta erakunde pribatu guztietara bidaltzea. Aipatutako araudia betetzeko ardura osoa hartzeko eskatzen zaie,hau da, derrigorrezko elkargokide egitea eskatuz,bai kasu batzuetan modu askean kontrata ditzakeen kanpoko profesionalei , eta baita Administrazioaren zerbitzurako funtzionario-harremanaren edo langile lan-kontratudun harremanaren eremuan daudenei, Gizarte Langilearen Gradu edo Diplomadun titulua edo Gizarte Laguntzailearena duten profesionalei eta/edo lanbide horretakoak diren funtzioak betetzen dituztenei ere.

Madrilen, 2019ko ekainaren 20an.

ciudadanas podrían verse vulnerados, estando desprotegidos ante una mala praxis.

Por último y no menos importante **la colegiación de los y las profesionales de Trabajo Social** otorga al colegiado/a el apoyo de una corporación de derecho público que defiende su independencia y autonomía profesional frente a los intereses de sus empleadores que pueden pretender que primen estos frente a los derechos de los y las ciudadanas.

Por ello, al ser el Trabajo Social una profesión calificada como colegiada, con la consecuente incorporación obligatoria a nuestros Colegios al amparo de la normativa anteriormente indicada, y tener los Colegios firmantes la obligación de velar por el cumplimiento de las funciones que les son atribuidas, es por lo que toda la estructura colegial en su Asamblea General Ordinaria de 30 de marzo de 2019 ha estimado conveniente remitir este escrito a todas las Administraciones Públicas y a las entidades privadas, solicitando se extreme la diligencia en el cumplimiento de la normativa citada, <u>exigiéndose la preceptiva colegiación</u>, no sólo a aquellos/as profesionales externos con quien pudiera libremente contratar la Administración en determinados supuestos, sino también a quienes, estando en el ámbito de una relación funcionarial o de personal laboral al servicio de la Administración, están en posesión del título de Grado o Diplomado/a en Trabajador/a Social o Asistente/a Social y/o desempeñan funciones propias de esta profesión.

Madrid, 20 de junio de 2019

C/ San Roque, nº 4, local 2. 28004
www.cgtrabajosocial.es

CONSEJO GENERAL DEL TRABAJO SOCIAL

COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE ARABA ARABAKO GIZARTE LANGINTZAREN ELKARGO OFIZIALA

COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE ALICANTE

COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE ALMERIA

COLEGIO PROFESIONAL DE TRABAJO SOCIAL DE ARAGON

COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE ASTURIAS

COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE AVILA

COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE BADAJOZ

COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE LAS ISLAS BALEARES COL·LEGI OFICIAL DE TREBALL SOCIAL DE LES ILLES BALEARS

COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE BURGOS

COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE CACERES

COLEGIO PROFESIONAL DE TRABAJO SOCIAL DE CADIZ

COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE CANTABRIA

COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE CASTILLA-LA MANCHA

COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE CASTELLON COL·LEGI OFICIAL DE TREBALL SOCIAL DE CASTELLÓ

COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE CATALUÑA COL·LEGI OFICIAL DE TREBALL SOCIAL DE CATALUNYA

COLEGIO PROFESIONAL DE TRABAJO SOCIAL DE CORDOBA

COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE GALICIA COLEXIO OFICIAL DE TRABALLO SOCIAL DE GALICIA

COLEGIO OFICIAL DE DIPLOMADOS/AS EN TRABAJO SOCIAL Y AASS DE GRANADA

COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE GIPUZKOA
GIPUZKOAKO GIZARTE LANGINTZAREN ELKARGO OFIZIALA

COLEGIO PROFESIONAL DE TRABAJO SOCIAL DE HUELVA

COLEGIO DEL TRABAJO SOCIAL DE JAEN

COLEGIO DEL TRABAJO SOCIAL DE LA RIOJA

COLEGIO OFICIAL DEL TRABAJO SOCIAL DE LAS PALMAS

COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE LEON

COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE MADRID

COLEGIO PROFESIONAL DE TRABAJO SOCIAL DE MALAGA

COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL REGIÓN DE MURCIA

COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE NAVARRA
NAFARROAKO GIZARTE LANGINTZAREN ELKARGO OFIZIALA

COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE PALENCIA

COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE SALAMANCA-ZAMORA

COLEGIO PROFESIONAL DE TRABAJO SOCIAL DE SEVILLA

COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE SORIA

COLEGIO OFICIAL DE SANTA CRUZ DE TENERIFE

COLEGIO OFIICAL DE TRABAJO SOCIAL DE VALENCIA
COL·LEGI OFICIAL DE TREBALL SOCIAL DE VALENCIA

COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE VALLADOLID Y SEGOVIA

COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE BIZKAIA
BIZKAIKO GIZARTE LANGINTZAREN ELKARGO OFIZIALA